



**28. ORDENANTZA FISKALA, UDAL JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA EDO APROBETXAMENDU BEREZIAREN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA ONDOKO KASUETAN: IBILGAILUAK ESPALOIETATIK IGAROTZEA, ETA IBILGAILUAK GELDITZEKO NAHIZ APARKATZEKO ETA MERKANTZIEN ZAMALANAK EGITEKO LEKU ERRESERBAK**

## I. XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA

Erandioko Udalak tasak ezartzen eta eskatzen ditu udal jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia egiteagatik ondoko kasuetan: ibilgailuak espaloietatik igarotzea, ibilgailuak gelditzeko eta aparkatzeko, eta merkantzien zamalanak egiteko leku erreserbak izatea, Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz. Ordenantzaren eranskinean jasotzen dira aplikagarri diren tarifak.

### 2. ARTIKULUA

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

## II. ZERGAGAIA

### 3. ARTIKULUA

Ibilgailuak espaloietatik edo jabari publikoko lurretatik zehar igarotzean eta aparkatzeko edo merkantzien zamalanak egiteko bide publikoaren erreserba egitean gertatzen den erabilera pribatibo edo aprobetxamendu berezia da zergagaia. Tasa ordaindu beharra dago ondoko kasuetan:

- a) Eraikin, establezimendu, instalazio eta partzeletako sartu-irtena espaloitik nahiz jabari edo erabilera publikoko bide eta lurretatik egiten denean. Berdin dio aparkatzea debekatzeko edo mugatzeko plakak izan ala ez izan.
- b) Merkantzien zamalanak egiteko lekuak gordetzea erabilera publikoko bideetan eta lurretan, beti ere partikularren edo entitateen eskariz.
- c) Erabilera publikoko bideetan eta lurretan lekuak gordetzea partikularren edo entitateen zerbitzurako.
- d) Bidaiariak garraiatzeko zerbitzu erregular nahiz diskrezionalen geltokietarako lekua gordetzea.

## III. SUBJEKTU PASIBOA

### 4. ARTIKULUA

1. Ondorengo hauek ditugu, zergadun modura, tasaren subjektu pasibo: pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 34. eta 35. artikuluetan aipatutako entitateak baldin eta haien izenean badaude lizentziak, edo aprobetxamenduaz baliatzen badira, eta berdin dio bidezko den lizentzia izatea ala ez izatea.

2. Ibilgailuen sartu-irtena espaloitik egiten denean zergadunaren ordezkari izango dira ibilgailuak sartu-irteten diren finka eta lokalen jabeak. Onuradun diren erabiltzaileei jasanarazi ahal izango die, hala badagokie, ordaindutakoa.



#### **IV. SALBUESPENAK, MURRIZTAPENAK ETA HOBARIAK**

##### **5. ARTIKULUA**

Ez dute Tasa hau ordaindu beharrik izango herri administrazioek, autonomia erkidegoek eta tokiko erakundeek Ordenantza honetako 3. artikuluan aipatutako aprobetxamendu berezietz gozatzeko lizentzia eskatzen dutenean, baldin eta zuzenean ustiatzen dituzten komunikazioen zerbitzu publikoei badagozkie eta nazio-segurtasun edo nazio-defentsaren intereseko badira.

#### **V. ZERGA OINARRIA**

##### **6. ARTIKULUA**

Tasaren zerga-oinarrria izango da udalerrriaren jabari publikoaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia gauzatzeko unitate bakoitza, Eranskinean adierazitako modura.

#### **VI. KUOTA**

##### **7. ARTIKULUA**

1. Eranskinean adierazitako tarifak aplikatuz zehaztuko da zerga kuota.

2. Bakarreko erabilerak edo aprobetxamendu bereziak udalerriko jabari publikoko ondasunak suntsitzea edo narriatzea badakar berekin, onuradunak haiek berreraikitze edo konpontzeko gastu osoa ordaindu beharko du eta zenbatekoa lanei ekin aurretik jarri beharko du; horrez gainera tasa ordaindu beharko du.

Kalteak konponezinak badira, Udalak kalte-ordaina jasoko du. Kalte-ordainaren zenbatekoa suntsitutako ondasunen balioa edo narriadurari dagokiona izango da.

Udalak ezin ditu barkatu idatz-zati honetan adierazitako kalte-ordainak eta itzulketak, ez osorik, ez zati bat.

#### **VII. SORTZAPENA ETA ZERGALDIA**

##### **8. ARTIKULUA**

1.- Udal jabari publikoaren bakarreko erabilera edo aprobetxamendu bereziagatik ordaindu beharreko tasa zergagaiaren arabera sortuko da ibilgailuentzako pasabide, gelditzeko eta aparkatzeko erreserba eta zamalanetarako erreserbaren kasuetan: batzuetan bakarreko erabilera edo aprobetxamendu berezia hasten denean sortuko da, eta dagokion zenbateko osoa edo zati bat aurretiaz ordaintzeko eska daiteke kasu horietan; besteetan, espedienteari nahiz jarduketari hasiera ematen dion eskabidea aurkezten denean, eta ez da jarduketa gauzatzeko ez espedientea tramitatuko dagokion ordainketa egin gabe.

2.- Tasa aldiro sortzekoa denean, urtarrilaren batean sortuko da, urtero, eta zergaldiak urte osoa hartuko du, bakarreko erabilera edo aprobetxamendu bereziaren hasieran edo amaieran izan ezik. Halakoetan, zergaldia egokitu egingo da kuota hainbanatuaz, Eranskinean adierazitakoaren arabera.

3.- Subjektu pasiboari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik jabaritzatza publikoaren aprobetxamendua ezin baliatu edo garatu bada, tasaren zenbatekoa itzuli egingo da.

## VIII. LIKIDAZIOA ETA SARRERA

### 9. ARTIKULUA

Kontzeptu bakoitzari dagokion likidazioa egingo du Udalak eta Eranskinean adierazitako araei jarraituz egingo da bidezko den ordainketa.

## IX. TASEN KUDEAKETA

### 10. ARTIKULUA

Ordenantza honetan araututako tasen kudeaketa, likidazioa, bilketa eta ikuskaritzari dagokionez, Lurralde Historikoko Foru Arau Orokorrak eta Ordenantza Fiskal Orokorrak ezarritakoa aplikatuko da.

### 11. ARTIKULUA

Zergen arloko arau-hausteak, haien sailkapena eta dagozkien zehapenak direla eta, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Ordenantza Fiskal Orokorrean xedatutakoa beteko da.

## X. XEDAPEN GEHIGARRIA

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

## XI. AZKEN XEDAPENA

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.

## ERANSKINA

1.- Erabilera partikularreko pasabideak, urtebeteko edo zatiko:

1.1.- Gehienez 10 ibilgailu.....	93,90 €
1.2.- 10 ibilgailu baino gehiago, 25 arte .....	174,00 €
1.3.- 25 ibilgailu baino gehiago, 50 arte .....	308,10 €
1.4.- 50 ibilgailu baino gehiago.....	433,50 €

2.- Merkataritza erabilerako pasabideak edo obren ondorioz gertatutakoak, urtebeteko edo zatiko:

2.1.- Gehienez 10 ibilgailu.....	213,00 €
2.2.- 10 ibilgailu baino gehiago, 25 arte .....	295,80 €
2.3.- 25 ibilgailu baino gehiago, 50 arte .....	378,90 €
2.4.- 50 ibilgailu baino gehiago.....	530,40 €



3.- Aparkatzeko lekuaren erreserba, metro edo zatiko ..... 17,80 €

#### TARIFA BEREZIA

Taxi geltokia: geltokia erabiltzeagatik urtean ordaindu beharrekoa ..... 69,40 €

#### **TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK**

a) Hiru metrotik gorako metro bakoitzeko edo zatiko ondorengo tarifa aplikatuko da: tarifa zati hiru ateratzen den kopuruaren hainbatekoa.

b) Espaloiko pasabideen zabalera finkatzeko, zintarria zenbat metrotan beheratuta dagoen neurtuko da, zintarria beheratua dagoen kasuetan. Espaloiko zintarria beheratu barik dagoen kasuetan, kasuan kasuko lokal edo orubera sartzeko hutsunearen zabalera erabilgarri osoa izango da kontuan hartzeko neurria.

c) Lokal batek pasabide bi edo gehiago izanez gero, lehenengo pasabideak dagokion epigrafearen arabeko tarifa ordainduko du eta gainontzekoek dagokien tasaren %50a

d) Eskatzaileen kontura izango dira pasabideak eta aparkaleku erreserbak egiteko, iraunarazteko, berritzeko nahiz kentzeko gastuak bai eta seinaleen gastuak ere.

e) Aparkatzeko debekurik ez duten pasabideen kasuan, %50eko murriztapena izango dute ordaindu beharreko tarifen.